

2.2 GAIAREN LANKETA

> Non dago?



- Egon aditza

• Begiratu eta entzun

Helburuak

- Umeeek egon aditza ikastea.
- “Nor dago?” galderari erantzutea.

Prozedura

- Umeei fitxa bana banatu eta arretaz begiratzeko eskatu.
- Arbelean, egon aditza idatzi eta azaldu zer den, zein esanahi duen eta zertarako erabiliko den.
 - **Zer da?** aditza da.
 - **Zer esan nahi du?** Yo estoy, tu estas, el/ella esta...
 - **Zertarako erabiliko dugu?** Momentuz, gu non gauden edo gauzak eta lekuak non dauden adierazteko.
- Hezitzaileak mimika eginaz adibideak egin: **ni___ nago**; norberaren burua seinalatuz eta dagoen lekua esanaz edo mimikaz imitatuz (adibidez, ni hondartzan nago esan eta mimika eginez igeri egiten ari dela adierazi). Horrela egin beste pertsona guztiekin ere.
- Umeei azaldu egon aditza erabiltzen dugunean, izenari (mendia, hondartza, denda, udaletxea) non kasua aplikatu behar diogula.
 - Arbelean idatzi: Ni Arrasate**N** bizi naiz
Ni Brasil**EN** bizi naiz.
- Eta azaldu gauza bera egingo dugula “non zaude?” galdetzen digutenean, gauden lekuari (e)n gehitu.

Oharra

- Garrantzitsuenak umeeek egon aditza ulertzea da. Euskaraz azaltzen saiatu, baina ez badute ulertu gaztelerara jo.